# Materia eta makinak NATURA 6

**Sailkatu indar mota bakoitza dagokion taldean.**

- Plastilina modelatzea
- Pilota bat lurrera erortzea
- Imanak klipa erakartzea
- Puxtarri bat hatzaz jotzea
- Zabua bultzatzea
- Sagarra zuhaitzetik erortzea
- Haizeak itsasontzi baten belak mugitzea

| Ukipen-indarrak | Urruneko indarrak |
| --- | --- |
| | |

1. Zergatik aldatzen da materia?
   - Materia aldaezina da.
   - Indar bat aplikatzen zaiolako.
   - Energia trukea dagoelako.

2. Egoeraz, posizioz edo itxuraz aldatzea, nolako aldaketak dira?
   - Aldaketa kimikoak.
   - Aldaketa fisikoak.
   - Erreakzio kimikoak.

LIVEWORKSHEETS

3. Nola deitzen zaio tenperatura ezberdinean dauden objektuen artean modu naturalean transmititzen den energiari?

- Energia kalorifikoa.
- Beroa.
- Energia zinetikoa.

4. Beroarengatik, tamaina-aldaketak gerta daitezke?

- Ez, tenperatura-aldaketak da bakarrik.
- Ez, beroak posizio aldaketak baino ez ditu eragiten.
- Bai, dilatazioak gerta daitezke, hau da, objektuak dilatatu edo uzkurtu egin daitezke.

5. Materiaren aldaketa kimikoetan...

- Bi substantzia edo gehiago nahasten dira, eta sortzen diren substantzia berriek beste propietate batzuk izaten dituzte.
- Objektua osatzen duen materiak egoera, posizioa, edo itxura aldatzen du, baina objektuak osatzen duen materia mota ez da aldatzen.

6. Metalezko barra bat berotzen baduzu, zer gerta daiteke?

- Egoera aldaketa bat gertatuko da.
- Dilatazioa bat gertatuko da eta tamainaz handituko da.
- Dilatazio bat gertatuko da eta tamainaz txikituko da.

7. Solidotzearen bidez...

- ... solido bat tenperatura jakin batera berotuz gero, likido izatera pasatzen da.
- ... likido bat tenperatura jakin batera hoztuz gero, likido izatetik solido izatera igarotzen da.
- ... tenperatura igotzean, likido bat gas izatera pasatzen da.

LIVEWORKSHEETS

8. Nola esaten zaio tenperatura jaisten denean, gas bat gas-egoeratik likido-egoerara igarotzeari?

- Irakitea.
- Kondentsazioa.
- Lurrunketa.

9. Zer indar-mota dira grabitate-indarra eta magnetismoa?

- Urruneko indarrak, objektuak ez direlako ukitzen mugitzeko.
- Ukipen-indarrak, objektuak ukitu egiten direlako mugitzeko.

10. Zer jokabide du malguki batek indarra aplikatzen diogunean?

- Jokabide plastikoa, indar egiteari uzten zaionean ez duelako hasierako forma berreskuratzen.
- Jokabide zurruna, indarra aplikatzean ez delako deformatzen baina hautsi daiteke.
- Jokabide elastikoa, indarra egiteari uztean hasierako forma berreskuratzen duelako.

LIVEWORKSHEETS